



Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2012ko apirilaren 19ko bilerako ondorio nagusien sintesia

- Honako puntuen **berri eman da**: 1.1. Udalei lankidetzeta-hitzarmenak bidalketa, 2012ko kudeaketa eta ekintza plana, eta urteko kuotaren eskaera; 1.2. Ekintza Planak Berrikusteko egutegiaren eguneraketa; 1.3. 2.0 partaidetzarako Aplikazioaren aurkezpena; 1.4. Euskarazko eranskailuak jartzea, tonerrak batzeko edukiontzietan.
- **Batzorde Nagusia**: egin izanaren eta bertako edukien berri eman da: balantzearen, memoriaren eta galera-irabazien kontuaren onarpena, 2011ko ondare-aldaketen egoera, emaitzen aplikazioa eta Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalen ibilerari eta aurreikuspenei buruzko beste gai batzuk.
- **Etxe Berdeak Programaren balantzea**: Partaidetzari, tailerretan aritu den jende kopuruari, ohitura-aldaketei, kontsumo-azterketei eta parte hartzen duten etxeen asebetetzeari buruzko datu nagusiak eskaini dira.
- **Erosketen zentrala**: Proiektu honetarako finantziazioaren bilaketaren egoera azaldu da.
- **Hondakinen kudeaketa**: Gai hauek jorratu dira: 1) Arropa batzeko zerbitzuaren lehiaketa; 2) Bizkaiko Foru Aldundiaren ingurumen arloko dekretuak: bosgarren edukiontzia eta hondakinen prebentzioa.
- **Isurketen lantaldea**: Udazkenean jarraipen-bilera bat egingo da. Ur Partzuergoari eskatuko zaio eskualdean sentsibilizazio-jardunaldi bat egiteko.
- **Kutsadura akustikoaren dekretua**: Euskal Autonomia Erkidegoan kutsadura akustikoa arautzen duen Dekretu Proiektuaren berri eman da. Bilera monografikoa egiteko erabakia hartu da, laguntza tekniko adituarekin.
- **Euskadiko Ekoeraginkortasunaren Astea 2012**: Ontzat jo da eskualdean jardunaldi bat egitea, kasu praktikoak aurkeztu eta enpresa bat bisitatu.
- **Laguntzak**: Zenbait laguntza-deialdiren egoeraren berri eman da: 1) Bizkaiko Foru Aldundia, tokiko ekintza planak ezartzeko diru-laguntzen programa (Tokiko Agenda 21); 2) URA, urari buruzko ingurumen arloko sentsibilizazio eta prestakuntzarako jarduerak; 3) Empleaverde programa; 4) EJren DMAPTAyP. Garapen iraunkorra sustatuko duten ekintzak.
- **Batzordearen hurrengo bilera**: maiatzaren 24an, osteguna, 09:00etatik 10:30era.